

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2021
udaleku irekiak

Udajolas, Usurbilen erroldatutako **4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko** haur eta gaztetxoei zuzendutako euskarazko Udalekuak dira. Uztailaren 5ean hasi eta 30ean amaituko da, eta astelehenetik-ostiralera 9:30-13:30ko ordutegia izango du.

Udajolasen helburua Usurbilgo haurrei zein gazteei euskarazko aisialdi eskaintza egokia (hezitzailea eta baloreetan oinarritua) bermatzea da, gure hizkuntza den euskararen normalizazioa bultzatzeko.

Izena emateko epea: apirilak 19etik, apirilak 30era (biak barne) izango da

Kuota: 85€ Familia Ugaria: 69€.

Ordainketa Laboral Kutxako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da
UDAJOLAS eta **HAURREN IZEN -ABIZENAK** adieraztea.

ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua)

Gehienezko plaza-kopurua 200 umekoa izango da.

Izena ematerakoan bidali (elkartea@noaua.eus helbidera) beharrezko dokumentua:

- Ordainketa agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia
- Familia ugarien kasuan, Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia

Oharrak:

- Apirilak 30 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan
- Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15ean (asteartea) izango da Sutegiko auditoriumean, arratsaldeko 17:00etan.
- Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, ordaindutakoaren %100 itzuliko da, betiere debeku edo itxialdiagatik bada.

